

F. Vasca de Juegos y Deportes Vascos
"CASA AUDITORIO DE ASTOLA"
48220 ABADIANO (VIZCAYA)



Euskadiko Herri Kirol Federakundea
ASTOLA AIZITEGIA
48220 ABADIÑO (BIZKAIA)

TEL. Y FAX: 94 681 81 12

EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOAREN HAUTESKUNDE ARAUTEGIA



I. IZENBURUA XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua

Euskadiko Herri Kirol Federazioaren hauteskunde erregimena Euskal Herriko Kirolaren Legean, Euskal Herriko Kirol Federazioaren urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan, hala nola hauteskunde material honetan adierazten diren jendaurreko xedapen guztietan, Federazioaren Estatutuetan eta Hauteskunde Arautegi honetan xedatutakoarekin egokituko da.

2. Artikulua

Botoa emateko eskubidea pertsonala eta besterenezina da. Ez da zilegi izango, inolako kasutan, bozketara eginiko bertaratzearen eskuordetzea eta beste pertsonengan eginiko botoaren eskuordetzea, hauek batzarkideak izan ala ez.

3. Artikulua

Botoa librea eta sekretua izango da. Inor ezin izango da behartu ala derrigortu inolako arrazoiengatik bere eskubidea betetzera, ezta bere botoa jakinaraztera ere.

4. Artikulua

Arautegi honetan ezarritakoa betetzen ez denean Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozeduraren Erregimen Juridikoaren inguruko indarrean dagoen 30/1.992 Legearen barne hartzen diren irizpideak eta arauak prozeduraren arloan aplikatu ahal izango dira. Era berean, Arautegi honetan ezarritakoa betetzen ez denean, hauteskunde legeria orokorraren barne dauden irizpideak eta arauak aplikatu ahal izango dira.



5. Artikulua

Hauteskunde jarduera guztiak (kandidaturen aurkezpena, aurka egiteak, kontsultak, etab.) Federazioaren egoitzan burutuko dira ondorengo ordutegietan astelehenetik ostirala arte: goizez 11etatik 12'30etara, arratsaldez 17etatik 20etara.

6. Artikulua

Abuztua ez da erabilgarri kontsideratuko hauteskunde xedeetarako. Bozketak ospatuko diren egunetan ez da autonomia eremuko ala maila urriagoko lurralde eremuko kirol probarik nahiz lehiaketarik ospatuko. Hauteskunde arautegi honetan aurreikusitako epeak beti lanegunekin egokituko dira, igandeak eta jai-egunak kanpoan geratuko dira.

II. IZENBURUA HAUTESKUNDE BATZORDEA

7. Artikulua

Euskadiko Herri Kirol Federazioaren Hauteskunde Batzordea hauteskunde prozesua sustatzeko eta honen garapen egokia zaintzeko ardura duen eskumeneko organoa izango da, federazioaren baitan hauteskunde prozesu horren Zuzenbidearekiko egokitzapena bermatuz.

8. Artikulua

Hauteskunde Batzordea hiru kideekin eratuko da. Hauteskunde Batzordeko kideek, beraien artean, bere Lehendakaria eta Idazkaria hautatuko dituzte. Era berean, ordezkoen kopuru berdina esleituko da. Lehendakaria eta Idazkaria esleitu gabe daudenean hauen funtzioak beteko dituzte kiderik zaharrenak eta gazteenak, hurrenez hurren.



9. Artikulua

Hauteskunde Batzordeko kideak Batzar Nagusiko kideek proposatutako pertsonen artean esleituko dira, botorako eskubidea duten Federazioko kideen artean, bere baitan eginiko bozketaren bidez; proposatutako kideek etorritako batzarkideen botoen bi herenak lortu beharko dituzte. Hautaketa hori boto gehienak biltzen dituztenei titularren postua emanaz burutuko da, ordezekoak bere segidaren arabera boto gehien lortzen dituztenak izango dira. Postuak estaltzeko behar adina proposatutako kandidaturik ez dagoenean edota ezarritako botoen minimoa lortzen ez denean, faltako liratekeenak jendaurreko zozketaren bidez hautatuko dira.

Inola ere ezin ahal izango du Batzordea eratu kandidatu bezala aurkeztuko litzatekeen edonork; egoera hau kideren batengan suertatuko balitz, honek kargua utzi eta bere tokia esleitutako ordezekoak bete beharko luke.

10. Artikulua

Hauteskunde Batzordeak ondorengo funtzioak beteko ditu:

- a) Hautesleen eta hauteskunde egutegia onartzea.
- b) Aurkeztutako kandidaturak onartzea, aldarrikatzea eta jendarteratzea.
- c) Hauteskunde Mahaia esleitzea.
- d) Kandidatu hautagaiak aldarrikatzea.
- e) Aurkezten zaizkion aurka egiteak, erreklamazioak, eskaerak eta errekurtsioak ebaztea.
- f) Hauteskunde aginduak interpretatzea eta hauteman ahal diren arautegiaren hutsuneak estaltzen saiatzea.
- g) Boto-txartel, gutun-azal, kandidatetarako inprimaki eta abarren eredu ofizialak onartzea.
- h) Hauteskundeen ospakizuna eta honen emaitzak zuzenean eragingo dituen edonolako auzi.



11. Artikulua

Hauteskunde Batzordearen saioa burutu ahal izateko nahikoa izango da bi kide etortzea. Saiora bere kiderik bertaratzen ez denean, Federazioaren administrazio organoak dagozkion neurriak hartuko ditu presazko izaerarekin zein ondoren Hauteskunde Batzordeak berretsi beharko baititu.

12. Artikulua

Hauteskunde Batzordearen funtzioen jardueraren iraupena lau urtekoa izango da, Batzar Nagusiak hau kargugabetu eta epe hori amaitu aurretik beste bat aipatu ahal izateari utzi gabe. Edozein kasutan, irteten den Hauteskunde Batzordeak bere funtzioak betetzen jarraituko du Hauteskunde Batzorde berria esleitzen den arte.

13. Artikulua

Hauteskunde Batzordearen hitzarmenak etorritako kideen gehiengoarekin burutuko dira. Ospatutako saio guztien ondoren, idazkariak akta altxatuko du. Hitzarmenaren aurkako botoek, betiere motibatuak izaten direnean, eratorri ahal izango litzatekeen erantzukizunetik libre utziko dute.

14. Artikulua

Hauteskunde Batzordeak ebazpena emango du erreklamazioa ala errekurtsua aurkezten den datatik aurrera kontatu beharreko 14 egun naturalen gehieneko epean. Aipaturiko ebazpenak errekurtsuan adierazitako nahiak erabat edota hein batean onartuko ditu ala atzera botako ditu.

Errekurtsua ala erreklamazioa lehen aipaturiko epean espresuki ebatziko ez balitz, errekurtsua jartzen duenak atzera bota dela kontsideratu ahal izango du, horrela, Kirol Justiziaren Euskal Batzordearen aurrean aurkeztu ahal den errekurtsuaren bidea zabalik geratuko da.



15. Artikulua

Hauteskunde Batzordearen kideak ekonomikoki konpentsatuak izan ahal dira organo horiek berezkoak dituzten funtzioak betetzerakoan. Ordainsari horren terminoak Batzar Nagusiak ezarri beharko ditu esleipena burutu aurretik. Hauteskunde Batzordean, bere jarduera guztietarako letradu baten laguntzarekin kontatu ahal izango da.

III. IZENBURUA HAUTESKUNDE MULTZOA

16. Artikulua

Euskal Federazioaren Batzar Nagusia hautatzeko, hauteskunde multzoa hau eratuko duten lurralde federaziotako batzar nagusietako kideekin osatuko da.

17. Artikulua

Euskadiko Herri Kirol Federazioaren lehendakaria hautatzerakoan, hauteskunde multzoa bere Batzar Nagusiko kideek eratuko dute.

IV. IZENBURUA ERREKURTSOAK

18. Artikulua

Hauteskunde Mahaiaren hitzarmenen aurkako errekurtsiak Hauteskunde Batzordeak ebatziko ditu eta bi egun naturalen epean aurkeztu beharko dira.

Hauteskunde Batzordeak egiten dituen hitzarmenak Kirol Justiziaren Euskal Batzordearen aurrean errekurritu ahal izango dira zazpi egun naturalen epean.

Epe horiek bere jakinarazpenaren ala, bere kasuan, argitalpenaren hurrengo egunetik aurrera kontatuko dira.



19. Artikulua

Hauteskunde Batzordeak ebazpena emango du gehienez 14 egun naturalen epean. Ebazpenak erabat ala hein batean onartuko ditu, edota atzera botako ditu errekurtsioan formulatutako nahiak. Errekurtsioa espresuki ezarritako epean ebatziko ez balitz, atzera bota dela kontsideratu ahal izango da eta Kirol Justiziaren Euskal Batzordearen bidea zabalik geratuko da.

Hauteskunde errekurtsioak ebazten dituzten Hauteskunde Batzordearen ebazpenek federazio bidea agortuko dute eta zazpi egun naturalen epean Kirol Justiziaren Euskal Batzordearen aurrean errekurritu ahal izango dira. Eskumeneko organoen hauteskunde ebazpenen jarduera, dagozkion federazio organoen kolaborazioarekin, Federazioko Hauteskunde Batzordeari dagokio.

20. Artikulua

Errekurtsioa jartzeko idatziak ondorengo erreferentziak ekarriko ditu:

- a) Errekurtsioa jartzen duenaren izena, abizenak, helbidea eta N.A.N. ala I.F.K.
- b) Bertaratutakoak betetzen duen ordezkaritza eta beste baten izenean esku hartzen denean haren bermea.
- c) Errekurritzen den jarduera.
- d) Errekurritzeko interesa ala legitimazioa.
- e) Errekurtsioa ezartzeko ekintzak eta legezko oinarri aplikagarriak.
- f) Ondorioztatzen den nahia.
- g) Aurkezpenaren tokia, data eta sinadura.

V. IZENBURUA

HAUTESKUNDE PROZESUAREN HEDAPENA

21. Artikulua

Hauteskunde Batzordeak federazioko kide guztiek hauteskunde prozesuaren inguruko behar adinako informazioa jaso dutela eta dagozkien eskubideak bete ahal dituztela bermatu beharko du. Horretarako, jarduneko gobernuaren



organoak aipaturiko Hauteskunde Batzordeak eskatzen dizkion beharrezko giza baliabideak nahiz materialak eman beharko ditu, hauteskunde prozesuaren ahalik eta hedapenik handiena lortu ahal izateko. Hauteskunde prozesuaren hasieraren iragarpena lurralde historiko bakoitzeko hedapen handieneko egunkarian burutuko da, hauteskunde egutegiaren laburpena barne izanik.

22. Artikulua

Federazio eta lurralde federaziotako egoitzaren iragarki-tauletan hauteskunde prozesuaren inguruko dokumentu eta hitzarmen guztiak erakustea derrigorrezkoa izango da. Federazio egoitza horietan hautesleentzako eskuragarri jarri beharko dira hauteskunde prozesuaren dokumenturik garrantzitsuenen behar adina kopia, esaterako hauteskunde egutegi, errolda eta arautegiarena.

VI. IZENBURUA BATZAR NAGUSIAREN HAUTAKETA

23. Artikulua

Lurralde federaziotako batzar nagusietako hautaketa amaitzen denean, Euskadiko Herri Kirol Federazioaren lehendakariak, dagokion hauteskunde deialdiaren bidez, erakunde honen hauteskunde garapenerako beharrezko izapideak hasiko ditu, eta jardunearan arituko da.

24. Artikulua

Horretarako esleitutako Hauteskunde Batzordeak lurralde federaziotako estamentu bakoitzari federazio honetako batzordean horietako bakoitzari dagokion ordezkarien kopurua esleituko dio, estamentu bakoitzaren arabera lurralde kideen kopuruaren proportzioaren arabera. Ordezkarien esleipen honek dagokion xedeetarako hauteskunde jarduera eratuko du.



25. Artikulua

Ordezkarien esleipena lurralde federazio bakoitzari modu frogagarrian jakinaraziko zaio eta lurralde nahiz euskal federaziotako iragarki-taulan erakutsiko da Hauteskunde Batzordeak hitzartzen duen denbora-epean zehar.

26. Artikulua

Lurralde federaziotako batzordeek estamentuetako bere ordezkariak esleitzeko bere bozketak ospatuko dituzte, berritzen denetik egiten den lehenengo bileran.

27. Artikulua

Lurraldekoetako batzar nagusiek hautatutako Euskadiko Herri Kirol Federazioaren batzar nagusiko kideak, era berean hauetako kideak izan beharko dira.

28. Artikulua

Hautaketa honek, estatutuan aurreikusten denean izan ezik, ez ditu hauteskunde prozesu baten ezaugarriak izango. Horrentzako kalterik gabe, ordezkari horien bozkatzeko jarduerak euskal federazioaren Batzar Nagusia eratzeko hauteskunde jarduerak kontsideratuko dira eta, ondorioz, hauen legezotasun kontrola Euskal Federazioaren beraren Hauteskunde Batzordeari dagokio.

29. Artikulua

Euskadiko Herri Kirol Federazioaren Batzar Nagusia hogeita hamalau kidek eratuko dute, ondorengo banaketaren arabera:

- a) Batzordeko kide guztien % 23,5eko kirol klub eta elkarten estamenturako ordezkariak, zein zortzi kideekin egokituko baita.
- b) Batzordeko kide guztien % 61,8ko kirolarien estamenturako ordezkariak, zein hogeita bat kideekin egokituko baita.
- c) Batzordeko kide guztien % 14,7ko teknikari jaun/andre eta epaile jaun/andreen estamenturako ordezkariak, zein bost kideekin egokituko baita;



ordezkaritza hauteskunderen deialdia egiterakoan estamentu bakoitzeko lizentzien kopuruarekiko proportzionala izango da.

Euskadiko Herri Kirol Federazioaren Batzar Nagusiko kideen kopuru osoa 34 kiderekin osatuko da.

VII. IZENBURUA

LEHENDAKARIA HAUTATZEKO PROZEDURA

30. Artikulua

Lehendakaria hautatzeko, hauteskunde multzoa Euskal Federazioaren Batzar Nagusiko kide guztiek eratuko dute. Izaera pertsonalarekin honetako kidea izaten denak Batzar Nagusirako hautatutako pertsona juridikoaren ordezkari izan izango du bete.

31. Artikulua

Euskadiko Herri Kirol Federazioaren Lehendakari izateko kideak, edonolako estamentu ordezkari izan behar dituzten Batzar Nagusiko kideak izan behar dira.

32. Artikulua

Batzordeko kideak behin betiko aldarrikatzen direnean, Lehendakariaren kandidatura aurkezteko epea zazpi egun naturalen azpitik egongo ez den epe baterako irekita geratuko da.

33. Artikulua

Kandidaturen aurkezpena Hauteskunde Batzordeak ofizialki onartutako inprimakian burutu behar da.



34. Artikulua

Kandidaturak behin betiko onartzen direnean, Hauteskunde Batzordeak hura formalki eratu dadin eta, bere kasuan, kandidaturen bozketa burutu dadin batzar nagusiaren deialdia luzatuko du. Deialdi hau, hauteskunde egutegian jadanik batzar nagusiaren ezohiko data azaldu arren, burutu egingo da.

35. Artikulua

Batzar Nagusiaren baitan bozketari ekin aurretik, kandidatura bakoitzak gehienez hamar minutuko denbora-epaia izango du hitz egin ahal izateko.

36. Artikulua

Bozketarako, Batzar Nagusiaren baitan Hauteskunde Mahaia eratuko da. Hauteskunde Mahai hau hiru kidek eratuko dute, Batzar Nagusira etorritako kideen artean Hauteskunde Mahaiak eginiko zozketaren bidez hautatuak izan direnak. Zozketan, era berean, hiru ordezeko hautatuko dira. Hauteskunde Mahaiko kide bakar bat ere ezin izango da Lehendakaritzarako hautagai bezala aurkeztu. Hautatutako kideren bat kandidatua izango balitz, bere postua dagokion ordezekoari esleituko zaio.

37. Artikulua

Hauteskunde Mahaiko Lehendakaritza eta Idazkaritza beteko dute pertsonarik zaharrenak eta gazteenak, hurrenez hurren.

38. Artikulua

Hauteskunde Mahaiak ondorengo funtzioak beteko ditu:

- a) Bozketa bakoitzaren garapen zuzena zaintzea, boto emaile bakoitzaren nortasuna eta bere hautesle jaun/andrearen egoera egiaztatuz.
- b) Emandako botoen baliagarritasunaren inguruan ebaztea.
- c) Botoen zenbaketa egitea.
- d) Bozketekin eta zenbaketarekin lotutako beste edonolako gertaera ebaztea.



39. Artikulua

Kandidatu jaun/andreek edozein pertsonaren aldeko botoa eman ahal izango dute, adinez nagusia dena eta bere ahalmen eta eskubide guztiekin kontaktzen duena, hauteskunde jardueretako bere kontu-hartzailearen betekizuna burutu dezan.

Kargu hartzea kirol federazioaren Notaria ala Idazkaritzaren aurrean burutu beharko da federazio arautegian ezarritako baldintzen arabera.

Bere funtzioa bozketa eta zenbaketaren jardueraren lekukoa izatera mugatuko da eta dagokion aktan hauteskunde jardueraren garapenaren inguruan formulatu nahi dituen adierazpenak jasotzeko eskubidearekin.

Kontu-hartzaile jaun/andreek Hauteskunde Mahaiaren aurrean bere egoera bermatu beharko dute bere karguaren berri emanez eta bere Nortasun Agiri Nazionala, pasaporteia ala identifikatzeko dokumentu analogoa aurkeztuz. Hauteskunde Mahaiak bozketa eta zenbaketa garatzen ari diren lokalean presente egotea zilegi egingo diete.

40. Artikulua

Bozketa estamentuen arabera burutuko da eta Hauteskunde Mahaiko Lehendakariak Batzordeko kideak bere izenaren bidez deituko ditu hautatutako kandidaturaren txartela horretarako prestatutako hautestontzira sartzeko.

Botoa, sekretua izango dena, Hauteskunde Batzordeak emandako txartel ofizialaren bidez emango da. Hautesle bakoitzak bere nortasuna frogatu beharko du nortasun agiri nazionala, pasaporteia, gidabaimena edota identifikatuko duen beste dokumentu analogo bat aurkeztuz. Pertsona juridikoek Lehendakariaren Ontzat Emanak dakarren eta erakundeko Idazkariak emandako egiaztagiria aurkeztuko dute, erakundearen lege ordezkaritza nork betetzen duen ala bozketetarako ahala noren eskuetan dagoen egiaztatuko duena.



Izapide hori betetzen duenean, boto emaile bakoitzak Hauteskunde Mahaiko Lehendakariari txartela emango dio eta honek hura dagokion hautestontzira sartuko du. Batzar Nagusiaren baitan ez dira botoaren eskuordetzea nahiz posta bidezko botoa onartuko.

41. Artikulua

Botoen berdinketaren kasuan, aurrekoa amaitu denetik ordubete pasatzen denean berri bat ospatuko da. Bozketa berrian botoen kopuru berdinekin kontaktzen duten lehenengo kandidatek soilik hartuko dute parte. Berdinketak irauten badu, hirugarren eta azkeneko bozketa bati ekingo zaio Hauteskunde Batzordeak ezartzen dituen terminotan. Berdinketak berriro irauten badu, Hauteskunde Batzordeak berdindutako kandidateuren arteko zozketari ekingo dio.

42. Artikulua

Inolako kandidaturarik aurkezten ez denean, Hauteskunde Batzordeak kandidaturak aurkezteko epe berri bat irekiko du. hau pasatakoan, inolako kandidaturarik aurkeztuko ez balitz, Hauteskunde Batzordeak jarduneko Lehendakariari horren berri emango dio, honek federazioaren desegitea hitzartu ahal izateko Ezohiko Batzar Nagusirako deialdia luzatu dezan.

43. Artikulua

Federazioaren Lehendakaritzarako kandidatura bakarra dagoenean ez da beharrezkoa izango bozketa ospatzea eta Hauteskunde Batzordeak kandidatua Federazioaren Lehendakari bezala aldarrikatuko du.

44. Artikulua

Hauteskunde prozesua amaitzen denean, hautatutako organoa hamabost egun naturalen gehieneko epean eratuko da.

AMAIERA XEDAPENA

Hauteskunde Arautegi hau onartua izan eta Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzen denetik hurrengo egunean jarriko da indarrean.